Mutrikuko Herri Aldizkarixa 2001eko abendua - 2 zkia.

KALAPUTXI



- ZELAKO OPARIAK EGIN GABONETAN?
- KIROLA : IGOR MENDIZABAL "GOXERRI"

OLENTZERORI ESKARIAK

Udazkena joan zaigu eta egutegiari ere geratzen zitzaion azken orria jausiko zaio aurki. Atzean geratu dira betetako hainbat amets eta bete gabeko beste hamaika. Orduan, urtea biluztu egingo da eta hamabi orriko jantzi dotorez jantziko da berriz.

Tartean, Olentzeroren bisita ere jasoko dugu gurean, zakukada bat opari bizkarrean dakarrela. Zaku horretan umeek eskatutako jostailuak, gazteek eskatutako ametsak, bikoteek elkarrentzako eskatutako zoriona kiloka eta zaharrek eskatutako onginahia ekarriko du Olentzerok.

Guk hitz hauen bitartez, gauza bat ere eskatu nahi diogu Olentzerori: Laster hasiko zaigun urte berrirako animua, ausardia, zortea eta gogoa ekartzea, Kalaputxi gure etxeetara ailegatzea posible izatea egiten duzuen guztiontzat eta, baita ere, aldizkarira idatzi nahi duten guztientzat, mutrikuar guztion artean errazago emango baitiogu indarra gure Kalaputxiri.

Eguberri zoriontsu eta urte berri oparoa guztionzat!

KALAPUTXI HILABETEKARIA

ARGITARATZAILEA: Karenka Elkartea
Erdiko Kale, 4 behea
20830 MUTRIKU
Tfnoa.: 943 60 34 68

E-MAILA: kalaputxi@topagunea.com
LAGUNTZAILEA: Mutrikuko Udala
LANGILEAK: Miren Lore Egurbide, Haroa Rodriguez
KOLABORATZAILEAK: Agurtzane Urriolabeitia, San Jeronimokuak, Eneritz Azkue, Gotzon Santander, Goizane eta Izarra Ituarte.
TIRADA: 1.700 ale
LEGE GORDAILUA: SS-787/01
IMPRIMATEGIA: Gertu Koop. E

Mutrikuko Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Kalaputxik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

Informazioa 4
Gutunak 5
Puri-Purixan 6, 7, 8
Bi Hitzetan 9
Auzoz Auzo 10, 11
Karenka 12, 13, 14
Kale Inkesta 15
Lan Giruan 16, 17
Kirolak 18, 19
Kultura 20, 21
Gazteria 22
Gizartea 23
Olgatzen 24
Argazki Zaharra 25
Agenda 26

BANCO Guipuzcoano
900 66 44 66
www.bancogui.es
P.M. Txurruka, 7 enparantza • 20830 MUTRIKU • 943 607 005

Informazioa

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia (Osakidetza) 943 60 43 00
DYA 943 60 33 17
Zentrala 943 46 46 22
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
Odol Emaileen Taldea. 943 60 39 30
BOTIKAK
* Otxagabia 943 60 30 43
* Apraiz 943 60 32 50

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

UDALETXEA
* Idazkaritza
* Kontuhartzailea
* Euskara Zerbitzua
* Udaltzaingoa 943 60 32 44

Turismo bulegoa 943 60 33 78
Posta 943 60 30 44
Bake epaitegia 943 19 50 81

HEZKUNTZA

IKASTETXEAK
* Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
* San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
* Mutrikuko Institutua 943 60 36 27

EUSKARA
* Udal Euskaltegia 943 60 30 94
* AEK 943 19 23 47

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte ongizate zerbitzua 943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza 943 60 39 40
Mikel Deuna Zahar Egoitza 943 60 38 71

ZERBITZUAK

Taxi geltokia 943 60 35 11
Pesa 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
AIREPORTUAK
* Hondarribi 902 40 05 00
* Bilbo (Loiu) 905 50 55 05

BESTE BATZUK

Liburutegia 943 60 41 82
Kiroldegia 943 60 31 75
Frontoia 943 60

Autobusak

Mutriku-Bilbo

Astelehenetik Ostiralera
7,20 / 8,20 / 14,20 / 17,20
Larunbatak
7,20 / 8,20 / 14,20 / 17,20
Igande eta Jaiegunak
8,20 / 14,20 / 19,20

Bilbo-Mutriku

Astelehenetik Ostiralera
9,00 / 12,30 / 17,30 / 19,30
Larunbatak
10,30 / 12,30 / 17,30 / 19,30
Igande eta Jaiegunak
10,30 / 17,30 / 19,30 / 22,00

Mutriku-Donostia

Astelehenetik Ostiralera lanegunak
07,00 / 10,00 / 13,30 / 18,30
Larunbatak
07,00 / 10,00 / 13,30 / 19,30
Igande eta Jaiegunak
10,00 / 16,00 / 19,30

Donostia-Mutriku

Astelehenetik Ostiralera lanegunak
08,00/11,30/13,00/14,30/17,30/20,30
Larunbatak
08,00/11,30/17,30/20,30
Igande eta Jaiegunak
11,30 / 20,30

Mutriku - Mendaro
8,05 / 9,45 / 11,45 / 13,25

Mendaro - Mutriku
9,20 / 11,20 / 13,00

Trenak

Bilbo - Donostia	
Egunero	
Bilbo	06,00/ 7,00...20,00
Deba	06,44/ 7,44...21,44
*jaiegunetan 8,00etan hasiko dira	

Donostia - Bilbo	
Egunero	
Donosti	05,47 / 06,46...20,47
Deba	06,43 / 7,43... 20,43
*jaiegunetan 7,47etan hasiko dira	

Eibar - Deba	
Egunero	
Eibar	06,13 / 7,13... 21,13
*jaiegunetan 8,13etan hasiko dira	

Deba - Eibar	
Egunero	
Deba	06,43 / 7,43... 21,43
*jaiegunetan 8,43etan hasiko dira	

Botikak

Zapatua 22	Deba	9.30tik-13ra
Domeka 23tik Barixakua 28ra	Deba	Gauez
Zapatua 29	Lon Apraiz	9.30tik-13ra
Domeka 30	Deba	Egunez-Gauez
Astelehena 31tik Domeka 6ra	Lon Apraiz	Egunez-Gauez
Astelehena 7tik Domeka 13ra	Deba	Gauez
Zapatua 12	Otxagabia	9.30tik-13ra
Astelehena 14tik Domeka 20ra	Otxagabia	Egunez-Gauez
Astelehena 21etik Domeka 27ra	Deba	Gauez

Gutunak

ERBESTETIK

Zorionak lehenik eta behin gure herrian euskal hilabetekari honen sorreran eta erakuntzan parte hartzen duzuen guztioi.

Familiaren bidez iritsi zait berorren berri, eta benetan proiektu beharrezkoa eta aldi berean zabal delakoan nago. Beharrezkoa, gure herri mailan pertsona orok aukera eta bitarteko gutxi izan duelako orain arte bere sentimendu, kezka edota egunerokotasun aurrunta azaltzeko; eta zabala pentsamolde eta iritzi desberdinek tartea dutelako bertan, gauza guztien gainetik errespetatuz. Eta nola ez herritar bezala, eta erbestean egonik honako aukera hau aprobetxagarria eta eskertzekoa suertatzen zait.

Gehiago luzatu gabe gaurko egunean, nere egoeraren berri ematera noakizue: gaur egun 17 errepresaliatuen espulsio eskaera eginik dago, Frantziak onartua duena dekretu gisa. Honek berarekin batera dakar tortura eta bestelako tratu txar ugari. Hau honela izanik besteok ere egoera zalantzakorrean aurkitzen gara, honek suposatzen duen eguneroko tentsioa jasanez eta ahal dugun moduan biziz. Eta guzti hau zergatik? Euskaldunak garelako, Euskal Herrian modu duin batean eta askatasunean bizitzeko eskubideaz baliatzea besterik ez bait dugu eskatzen.

Egoera latzean aurkitzen gara, baina egoera honi konponbidea aurkitu nahi badiogu denok jarri behar dugu zertxobait ahal dugun neurrian; eta datorren urteari begira nire eskaera hauxe bera litzateke: denok eman behar dugu zertxobait, gutxi batzuk dena eman ez dezaten, mobilizazio eta herri ekimenetan parte hartuz, beti ere helburu euskaldunok Euskal Herrian modu aske batean, inongo errepresiorik gabe bizitzeko eskubideaz gozatzea izanik.

Zorionak emanez hasi naiz eta era berean bukatzea nahiko nuke; adio hau laister arte izango delakoan...

ARRATE

EREINDAKOAK EMATEN DU FRUITUA

Aurreko hilabeteko azken hamabostaldian herrian izan dugu gozamenerako aukera. Goizeko Izarra Antzerki Taldeak eskeini digun ekintza sorta ez baita makala izan. Ekitaldi guztien artean bereziki bat aipatu nahiko nuke: Beheko plazan egin zen herri antzezlana. Hango entsaioak eta nerbioak, dekorazio eta apainketak; herriko jende gazte, heldu eta zaharrak denak batera abesten. Nolako irudi polita! Hau herriaren bizia!

Jakin badakit lan hau aurrera eramatea ez dela erraza izan, baina lortu den emaitza ezin hobea izan da (nahiz eta batzuei osasunak faktura pasatu) eta herriak herriarentzako egindako lana herrian geratzen da.

Honen beste adibide garbia, hilabete honetan zelebratzen den Santo Tomas feriarena dugu: urte batzuk badira Mutrikun feria egiten dela eta urtez urte dotoreago gainera! Baina nik hasierara itzuli nahi nuke, hasiera denak gogorrak direlako eta ez zaidalako iruditzen ahaztu behar ditugunik. Herriko AEKren ekimenez sortu baitzen herrian ospatzen dugun feria.

Beraz, nire eskerrik eta zorionik beroenak Goizeko Izarra Antzerki Taldeari eta AEKri eta hauen inguruan lanean ibili zareten herritar guztioi!!

AITZ

Orri hau beti egongo da zabalik zeozer esateko duzuen mutrikuar guztiontzat.
Utzi esateko duzuna
Erdiko kale 4-beheko buzoian

Santo Tomas Feria

Dakigunez, Santo Tomas eguna abenduaren 21ean ospatzen da. Egun honetan ohitura da txorizoa jatea, etxean, tabernetan... Santo Tomas feria tradizioz betetako jaia da, Euskal Herriko hainbat herritan egiten dena eta Mutrikun ere ospatzen da feria hau.Santo Tomas feriarekin Gabon giroari hasiera ematen zaio. Aintzinean, Gabonak baino egun batzuk lehenago, baserritarrak kalera jeisten ziren urteko errentak baserriaren nagusiari ordaintzeko:"Santo Tomas eguna, errenta eguna" esaera zahar batek esaten duenez. Jai egun bezala hartzen zen egun hau, familia eta lagunekin ondo pasatzeko.

Mutrikun Santo Tomas feria orain dela hamasei bat urtetatik ospatzen den jaia da. AEK hasi zen hau guztia antolatzen gure herrian euskarari bultzada bat emateko eta bide batez, AEKrentzat diru iturria izateko, urtean zehar lanean jarraitzeko. Santo Tomas eguna aukeratu zen Euskal Herrian tradizioa zelako egun hau ospatzea. Donostian, Bilbon... eta beste hainbat herritan ere antolatzen bazen, zergaitik ez Mutrikun?

Ahal zuten neurrian hasi ziren dena prestatzen. Kontuan izan behar da orduko baliabideak murritzagoak zirela. Orduan, zaila zen baserritarrekin harremanetan jartzea AEKren azpiegitura ez zelako oso indartsua, beraz herriko jendea zen puestoetan egoten zena. "Guk produktuak erosten genituen gero azokan saltzeko" lehenengoetako antolatzailea izan zen Auro Ansorregiren esanetan. Horrela, jai giroan izaten zen feria.

Hasierako urteetan dena Beheko Plazan izaten zen, baserriko produktuen salmenta, txorizo eta taloa... Euskal kultura suspertzeko liburu eta disken salpostua ere ipintzen zen. Honekin batera eta Santo Tomaseko egitarauaren barruan, Bertso Paper lehiaketa antolatzen hasi ziren, gaur arte iraun duena. Garai horretan, Santo Tomas egunean bertan izaten zen feria, hau da abenduaren 21ean. Feria ondo antolatzen zen, dena prest egoten zen eguna heltzen zenerako, baina herrian ez zen jai eguna, beraz, jendea ez zen asko animatzen. Hori ikusita, astebukaeran ospatzea pentsatu zen, aurreko ala hurrengo larunbatean, hain zuzen ere. Honela jende gehiago animatu zen ferian parte hartzera,

EDARI BILTEGIA
ALMACEN DE BEBIDAS
Gabonetarako
Prezio bereziak egingo dira
Ardo, txanpain, likore..
Etorri eta galdetu!
Iñarrairaegi
Gabon Zoriontsuak Pasa
Telf./Fax. 943 60 39 38 - Telf.Dom. 943 60 38 93 Móvil: 609 41 33 06
"MENDI AZPI" - 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

Ferreteria Lekube
Etxeko hornidurak, opariak eta jostailuak
Erdiko kale, 40
Tel. 943 60 36 06

bai antolatzaile zein herriko jedearen artean, horrek diru gehiago jasotzeko aukera eskeintzen zuelarik.

MutrikukoAEK-k azpiegitura sendorik ez zeukala ikusita, hurrengo pausoa Udalarekin harremanetan ipintzea izan zen eta Santo Tomas feria bien artean antolatzeko proposamena egin. Horixe egin zen eta orain dela sei bat urtetatik, DEBEMENen laguntzarekin antolatzen dute Santo Tomas feria.

"Beste diru iturria zozketak ziren, txerri zozketa egiten zen, nahiz eta Mutrikuko txerriak Bilboko "Tiberio"rekin zerikusirik ez izan, gurea txikiagoa baitzen."

DEBEMEN arduratzen da herriko baserritar denekin harremanetan jartzeaz eta herriko baserritarrek daukate, beti, lehentasuna. Hauek uko eginez gero, eskualdeko baserritarrekin hitz egiten da, eta azkenean kanpoko baserritarrekin.

Urte batzuetan Beheko Plazan egon ondoren, feria Goiko Plazan egitea pentsatu zen, tokia egokiagoa zela eta. Herrikoentzako feria izateaz gain, kanpotik etortzen den jendea ere kontuan izan behar eta horretarako Txurruka Plaza erosoagoa zen.

Antolatzeko orduan, beti bide bera jarraitu da, jaia euskal giroan izatea eta herriko produktuen erakusketa eta salmenta egitea. Baserritarren lanari bultzada bat ematen zaio Santo Tomas azokan, Mutriku itsas giroko herria izateaz gain hainbat baserrik inguratuta baitago. Santo Tomas feria baserritarren feria da.

Feria honetan gure baserrietako produktuak jendeari ezagutaraziz gain irteera bat ere ematen zaizkio, beti euskal giro baten barruan eta inoiz ahaztu gabe Santo Tomas feriaren hasierako helburua, euskara berreskuratzearena.

Nahiz eta, hasiera batean, baserritarrak ez izan ferian, urteetan zehar baserritar gehiago jeisten dira azokara euren produktu onenekin, barazkiak, fruta, indabak... Postu guztiak produktu hauekin dotore jantzita egoten dira. Ibiri, Aritza eta Itxasgain baserriak euren barazkiak txukun ipint-

OKILA S.L.
EBANIZTERIA
OKILA
AROZTEGIA.S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Fax: 943 60 31 03

PANADERI – BERRI
C/ BARREN KALEA, 4 TEL. 943 60 33 03
MUTRIKU

zen dituzte etortzen den jendeak ikusteko, porru zoragarriak, azaloreak, azak... Sagarmiña baserrikoak, hainbat sari jasotakoak, goizetik aritzen

"Iaz, beste pauso bat emanez, ganadua ekartzea erabaki zen"

dira beren frutak ondo ipintzen, sagarrak, kiwiak, udareak... Eztia ere ikus daiteke, Jose Urkirirena, eta, noski, falta ezin den produktua, gazta, Itxasgain baserrikoa. Azoka bukatzean denek jasotzen dute saria.

Salpostu hauez gain, taloa eta txorixoa jatea tradizio da, herriko "baserritarrek" egindakoak, egun aproposa hau guztia dastatzeko, eta "sakatzeko" txakolina edan behar. Txorixoa jan bitartean trikitiaren soinua entzuten da plazan, benetan giro alaian.

Joan den urterarte, bakarrik barazkien, fruten... azoka egiten zen baina, gure baserritarrek animaliekin ere lan egiten dutenez, animalien feria ere interesgarria izango zela pentsatu zen.

Udalaletxean baserritarren arduraduna zen Itziar Egurbidek baserritarrekin hitz egin eta ideia onartu egin zen. Beraz, iazko feria leku desberdinean izateaz gain, "Plaza Txikixan", tokiaren arazoagatik, abere feria eleiza atzeko aparkalekuan izan zen. Ganaduaren berrikuntzak harrera ona izan zuen, Mutrikukoak ziren ganadua eta abere guztiak, bufaloak izan ezik, Usurbilgoak baitziren.

Iazko ferian egondako ganadua ondokoa izan zen: Saldumendi elkarteko lau frisoi, Pikuako idi bi, Gorixoko behia, behorra eta txahala, Ibiriko astoa, ardiak, betizuak, ahuntzak eta pottokak, Erdikuako pireinaika bi, Aitzetako blonda bi, Kostolako zezen bi eta basurdea, Gaztañetako astoa, Gaztañeiko behorrak, untxiak, kapoiak, behiak eta idisko bat.

Santo Tomaseko ferian barazkiak eta ganadua ez dira guztia. Bertsoak ere beti egon dira presente egun honetan. Izan ere, "Mutrikuko Bertso Paper lehiaketa"ren irabazleak Santo Tomas ferian ematen dira ezagutzera. Iaz arte AEK-k antoltutako lehiaketa horri aurten Bertso Eskolak emango dio segida "Okelar Bertso Paper saria" izendatuta.

Egun honetan baserritar giroa izaten da gure herrian, baserriko produktuak, ganadua, txorixoa eta taloa..., beraz, antolatzaileek jendea animatzen dute egun horretan baserritar jantzita kalera ateratzera. Horrela, denon artean, bai baserritar bai kaletar, Santo Tomas feria benetan girotzea lortuko dugu.

SANTO TOMAS FERIXAKO EGITARAUA

2001eko abenduak 22, zapatua, Elizatzean

9: 30 Elgoibarko Dultzaineroak

10:00 -14:00 Ferixa:
- Barazkiak
- Fruta
- Abereak
- Ogia, gazta, eztia...
- Euskal liburu eta diskak
- eta beste

13:00 *Okelar Bertso Paper sariketa*ren sari banaketa.

Oharrak

Goizean zehar, Nafarroako Talogileak, bertsolariak, trikitilariak...

Baserritarrez jazteko gonbitea luzatzen zaie herritarrei.

Antolatzaileak:
- Mutrikuko Udala
- Debemen Mendi-nekazaritza elkartea

BITXITEGIA
Vitoria
Tel : 943 603 343
MUTRIKU
ZARAUTZ
HERNANI

BEHERAPENAK
ATERPE ALTZARIAK
Erdiko kale 22
Telf: 943 60 44 38
Mutriku
ERAKUSKETAKO ALTZARIETAN
%20 %25 %30 %40

Urteberri egunean, denok Arnora

Gabonak badatoz, herriko kaleetan gabonetako argiak ikus daitezke, Goiko plazan, betiko lekuan, gabonetako zuhaitza ere hor dago dotore apainduta kolorezko argi eta guzti. Herria gabon giroan dago eta gure Arno mendia ere bai.

Egun hauetan Arnora igotzen denak gurutzeren azpikaldean jaiotza ikusteko aukera izango du. Burumendi Mendi Taldeak, urtero bezala, Arnora irteera bat antolatuta jaiotza eramaten du bertara. Honetaz gain, urte berriari ongi etorria emateko, Arnoko aterpean salda beroa, txorixoa eta txakolina banatzen da. Urtero egiten den ospakizun txiki bat da eta jendea beti animatzen da Arnoko gurutzeraino igotzera eta gero hamaiketako beroa jatera. Batzuk betiko mendigoizaleak dira eta beste batzuk, gau pasa eder bat egin ondoren, Arnon hamaiketakoa egitea pentsatu dutenak.

Egun horretan, Arno ingurua, oso animatuta egoten da, goizean zehar jendea gora eta behera ibiltzen baita.

Urteberri egunean Arnora igotzea txorixoa eta salda jatera, mutrikuarrentzat tradizio bihurtu da.

Ziñuako kobazuluetan indusketak

Ziñua gaineko kobazuloetan, "Lamin zulon" hain zuzen, urrezko orrazi zahar bat aurkitu dute azkenengo induskетetan. Ile batzuk zituela eta, ADN azterketa egiteko eraman dituzte.

Laster espero da lamiaren egitura zein itxura fisikoa irudikatzea.

Izugarrizko garrantzia eman diote adituek aurkikuntza honi, euskal mitologiari buruz asko esan dezakeela uste baitute.

Basurde ehiza Mutrikun

Mutrikun badago basurdeak ehizatzen dituen taldea, Arno izenekoa. Kideak mutrikuarrak ez ezik, Elgoibar, Eibar, Deba, Ondarru, Amoroto eta Markinarrak ere badira.

Basurde ehiza Gipuzkoan urriaren 12an hasten da eta urtarrilaren 27an bukatu. Bizkaian, irailaren 30ean hasi eta otsailren 10ean bukatu.

Aurten Mutrikun basurde gutxi dabilenez, Mendaro aldean dabiltza ehizean.

Dagoeneko 28 ehizatu dituzte baina urtea bukatzerako espero dute beste hainbeste lortzea.

ERDIKO
Merzeria
Kinkilak, azpiko arropak, hariak, artilea...
Erdiko kale 12 - Tel. 630 222 781

Guadalupe
Egunkariak, liburuak, aldizkariak, janariak...
Txurruka plaza 3, Tel. 943 60 35 43

Galdonamendi

Gabonen inguruan kontu kontari

Gabon jaien atarian egonik, auzoko aiton-amonengana jo dugu jakinminez beterik, orduko ohituren berri izateko.

Beraiekin izandako hizketaldiaren ondoren, garai hartako gabonak oso bestelakoak zirela ohartu gara. Hasteko, haurrek ez zuten olentzero edo Hiru Errege Magoen oparirik jasotzen, ezta zuhaitzik apaindu ere. Famili osoa beheko suaren inguruan biltzen zen afari goxoa jan eta gabon kantuak abestuaz. Su hori ez zen edonolako egurrekin egiten, aldez aurretik gordetako egurrekin baizik. Gabon gauean mahaia bedeinkatu ondoren ogi koxkor bat gordetzen zen hurrengo urteko gabon egunean etxeko abereren bati emateko. Ogi zati hau leku lehor baten gordetzen zen eta ez pentsa lizuntzen zenik, ondo baino hobeto irauten zuen hurrengo urterarte.

Garai hartako gabonak beste zentzu bat zuten dudarik gabe.

Mijoa

Badatoz Gabonak San Jeronimora

Horra, horra! Etorriko ote da Olentzero San Jeronimora? Beno, espero behintzat, espero dugu.

Urteroko ohiturei jarraituz, aurten ere gabon eskean irtengo gara. Orain dela 12 urte inguru hasi ginen, lehenengoz 6 haur bildu ginen aintzinako usadiua berreskuratzeko ilusioarekin eta oraindik ere aritzen gara baserriz baserri gabon abestiak abesten.

Noski, orain jende kopurua handiagoa izanik, giro polita sortzen da gure artean eta esan daiteke nolabaiteko poztasun zabaltzen daiatzen garela. Trukean limosnatxoa eta jateko goxoak (turroia, pastak...) ematen dizkigute.

Limosna auzoko jaietarako gordetzen dugu, aldiz jatekoa gure sabelek eskertzen dituzte; ez pentsa, gogorra da baserriz baserri, hotsetik babestuz, kantuan aritzea.

Gogoan dugu, txikiagoak ginenean, auzoko baserri denak oinez igarotzen genituenean... haiek ziren sasoiak, haiek! Haurrak bizkarrean hartu eta Doistu Goikorarte igo eta gero mendiz Arantzamendiraino, hasi Tetuan-etik eta Saturraran Zar-arte oinez igarotzen genuenean baserriz baserri abesten, badauzkagu bai pasarte batzuk!

Orain, aldiz, pixka bat alpertuta gaude eta gehiena kotxez egiten dugu edota tratorean ibili izanak gara, guk egindko Olentzero bertan eramanez.

Horrela ba, San Jeronimoko guztien partez, Gabonak ondo pasa eta ea Olentzerok opari asko eta poza ekartzen dizuen zuen etxeetara.

ATXUKALE ESTANKOA

• Opari denda
• Lurrindegia
• Paperdenda eta
• Fotokopiak

Modesto Txurruka kalea, 15
Tel. 60 44 23

20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

Solé Diesel VOLVO PENTA YANMAR MOTORES MARINOS DIESEL

DOISTU

ITXASOKO MOTORREN ALDAGAIAK eta KONPONKETAK

Nasa Kalea, 5 · 20830 MUTRIKU - GIPUZKOA
Tfnoa: 943 603872 / Mugikorra: 659 670233 / Faxa:943 603078

Laranga

Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu

Gabon eguna beti izan ohi da berezia zentzu guztietan. Urteak pasatu arren, familia bakoitzak ahalik eta era hoberenean pasatzen ditu jai eder hauek.

Laranga auzoan, beste auzoetan bezala, gabon jaiek beti izan dute toki berezia egutegian.

Orain kontatu behar dizuedana auzotar jator baten testigantza zuzena izan da. Bere bidez jakingo dugu zer izaten zen gure baserrietako mahaietan Gabon gauean.

Plater nagusia olioaza edo azaolioa izaten zen. Gaur egun etxe gutxitan jarraitzen den ohitura da, aza noiznahi jaten dugulako baina lehengo garaietan oso plater berezia eta maitatua zen olioaza. Ondoren mamakuloak jaten ziren. Plater hau goxoa izateaz gain aberatsa zen, txorizoa, jamoia eta okela botatzen baiziren. Aintzinako usadio hau Bizkaia aldean oraindik mantentzen da baina gure auzoan toki gutxitan jaten jada. Agian lan handia baita, mamakuloa urriak jaso, lehortu, garbitu eta txukun-txukun prestatzea. Bigarren platerra bakailua tomatearekin edo oilaskoa patatekin izaten ohi zen. Oilaskoa bereziki loditzen zen Gabon gaberako artua, garia eta kanpoko belar freskoa janda. Ondoren intxaur saltsa ateratzen zen mahaira. Auzoko andrak goizean goiz hasten ziren intxaurra txikitu eta kazuelan prestatzen. Azukrea, ogi mamia, esnea eta udazkenean batutako intxaur mordoa erabiltzen ziren horretarako. Eta postrea nola ahaztu. Gaur egun turroia, mazapana eta litxarreria ugari izaten ditugu gure mahaietan baina garai zaharretan "aixa" (esnea, irina, azukrea eta kanelakin egindako postrea) eta sagar-saltsa ziren postre nagusiak. Ondoren kafe beroa eta denak jaia ospatzera.

Gabonetako zuhaitza ere ipini ohi zen garai haietan. Baina oraingo argi modernorik ez zegoenez, paper disdiratsua erabiltzen zuten etxeko gazteek zuhaitzari kolorea eta alaitasuna emateko. Zintak eta lazoak ere ipintzen ziren arbola apaintzeko.

Baina gehien harritu nauen ohitura hauxe duzue. Afaldu ostean, errosario santua errezatzen zen eta ondoren, auzoko gazteak baserri batetan biltzen ziren baserri hartako sendiarekin jaia ospatzeko. Hurrengo urtean, beste baserri batean biltzen ziren gazteak. Niri ohitura honen berri eman didanak zuzen zuzenean bizi izan zuen usadio hau. Adibide gixa urte batean, Pikua baserrian elkartu ziren San Juan eta Aateiko gazteak. Hurrengo urtean, San Juan-en eta hurrengoan Aatein. Bertan Jesus-en jaiotza ospatzen zen dantza eginez eta goizeko 6etan denak mezetara jeisten ziren Mutrikura. Natibitate eguna bakoitzak bere familiarekin ospatzen zuen eta San Esteban egunean, abenduaren 26an, Langamendiko gazteak erromerira joaten ziren.

BERISTAIN

DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA

Zorionak eta Urte berri on!

943 60 35 44

Zelako opariak egin Gabonetan?

Olatz Azpiazu, Pedagogian lizenziatua, Urtxintxa elkarteko partaide zortzi urtetan eta aisialdiarekin lotuta zenbait ikastarotan parte hartzen duen mutrikuarra da. Azken lau urteotan elkarteko Zuzendaritza Batzordean dago sartuta. Gabonak datozela eta, denok gaude pentsatzen zer eskatu Olentzerori eta Erregeei , horretaz hizketan egon gara Olatzekin.

- *Jostailuak erosterakoan, zer eduki behar da kontutan?*

-Lehenengo eta behin, gaur egunean umea telebistaren eta etxera heltzen den propagandaren biktima bat bezala ikusi behar da. Errealitatearekin zerikusriki ez daukan gauza asko ikusten du. Umeak horri aurre egiteko ez dauka gaitasunik eta inork ez dio laguntzen.

- *Zure ustetan, zer egin behar da?*

-Dendara joan eta ikusi nolakoa den jostailua eta gero konparatu telebistan agertzen denarekin, gero, umeari azaldu behar zaio, bere neurrian, errealitatea zein den. Kontsumitzailearen eskubidea da kajaren barruan zer dagoen ikustea. Telebistan, aldizkarietan, propagandetan ikusten dena ez da errealitatea, umeari momentu horretan lagundu egin behar zaio eta gurasoek eman behar dute orientazio hori.

- *Gaur egunean, umeak opari asko jasotzen dute, hori ona da?*

-Nik ez dut uste kantitatearen kontua denikan, kalidadean dago arazoa. Guraso bat kontzientea izan daiteke opari batek kalitatea eduki behar duela, baina amonak edo izebak ez du berdin pentsatzen eta umeari oparitzen dio bere gustuko opari bat, gurasoentzat ez dena egokia.

Hemen gurasoen jarrera inportantea da, aurrez hitz egin behar da familiarekin eta azaldu zein den gurasoen ideia, eta denak ados jarri. Aurrez egin behar den lana da.

- *Hainbeste propagandaren aurrean, umeak badaki zer nahi duen benetan?*

-Umeak beti daki zer nahi duen, umeak beti daki "dena" nahi duela, erakartzen dion edozer gauza nahi du. Horretarako umeak dauka bere ondoan pertsona heldu bat, horretaz orientazio bat emango diona.

"Azken finean bakoitzak daukan baloreak umeari transmititzea da, honekin batera dator kontsumo kontzientea egitea eta kalidadeari garrantzia ematea"

- *Bi edo hiru urteko umeari nola azalduko diozu hori?*

kutxa
zuri esker

-Sei edo zazpi urte daukaten umeei bezala, berdin-berdin. Ume txikiek gaitasun berdina daukate gurasoari ulertzeko, beti kontutan edukita bi urteko ume batekin zaudela hitz egiten. Beste era batera azalduko dizkiozu gauzak, baina bai ulertuko dizula.

- *Askotan pentsatzen da jostailu garestiena onena dela, hori horrela da?*

-Produktu ona beti da garestia, ez diru asko balio duelako, ez dut nahi garestia diru kontuarekin errelazionatu. Ona garestia dela esaten dudanean, jostailua zelako materialarekin dagoen eginda begiratzen diot, materiala toxikoa den ala ez, PVC gorria daukan ala ez...Horretarako jostailu saltzaile profesionala izan behar da, heziketa bat daukana jendeari orientatzeko jostailu bat erostera joaten denean. Adibidez, Bilbon dago jostailu denda bat "Pinotxo" izenekoa, benetako orientazioa ematen duena jostailu bat erosteko momentoan.

- *Batzuetan ezinezkoa izaten da umeak eskatzen*

"Adin bakoitzak bere jolasak behar ditu. Adin berdineko umeek antzerako jostailuak erabiltzen dute"

duena, dendetan bukatu egin delako edo oso garestia delako. Beti eduki behar da kontutan zer eskatzen duen?

-Urtean behin umeari ematen zaio askatasuna berak nahi duena aukeratzeko, askatasun hori eta poz hori noizean behin ematea ona da. Orain, ezinezkoa denean, ez dadila trauma bat izan umearentzat.

Hor dago beste joko bat ere, gurasoak egiten dugun "xantaia", "ondo portatzen bazara Olentzerok zuk nahi duzun bizikleta urdina ekarriko dizu". Gero gerta daiteke hainbeste esandako "bizikleta urdina" ezin izan dugula lortu. Kasu honetan disgustoa umearentzat bakarrik ez da izaten, gurasoentzat ere bai. Horregatik umeak zer nahi duen kontuan edukitzeak bere arriskua ere badu.

- *"Game-boy"jolasari buruz, zer pentsatzen duzu?*

-Beste jolas bat dela. Kontra daukana da jolas taldearen murrizketa, lagun arteko jolasa gutxitu egiten da, euren harremanak ere gutxituz. "Game-boy"a gaitasun batzuk lantzen duen jolas bat da, baina beste batzuk baztertu egiten ditu, ez da jolas txarra bere neurrian erabiliz gero.

- *Jolas bat aukeratzerakoan, beste umeekin jolasteko aukera izatea kontutan eduki behar da?*

-Bai, jolasa da beste umeekin harremanetan egoteko modu bat, beraz, zenbat eta jende gehiagok parte hartu jolas batean, beti egokiagoa izango da. Ume bat edo bi jolasteko jostailua, niretzat, oso pobrea da. Horrek ez du esan nahi umeak bakarrik ez duela jolastu behar, baina jolasak beste pertsonekin jolasteko aukera eman behar du.

- Umearen adina garrantzitsua da jolasa aukeratzeko unean?

-Bai. Adin bakoitzean umeak gaitasun desberdina lantzen hasten da, psikomotrizitatea, imaginazioa...

- *Jostailuak derrigorrezkoak dira?*

-Jakin behar da umearentzat jostailu bat zer den. Askotan umearentzat bizigarriagoa da etxeko edozer tresna, adibidez, lapikoaren tapa bat, jolas dendan erosi dugun jostailu bat baino. Momentu horretan lapikoaren tapa edo erropak esekitzeko pintzak jostailuak dira, eta hori ez da txarra.
Umearentzat garrantzitsuena jolasa da eta gurasoentzat jostailua

- *Gabonetako "jostailu bonbardeoa" telebistan, etxeko buzoietan... zer iruditzen zaizu?*

-Azken finean, enpresa batzuk dira bere produktoa saldu nahian. Jakin behar da bereizten eta aukeratzen, eta gero, errealitatearekin egiaztatu, inongo sorpresarik ez eramateko.

- *Bukatzeko, zer esango zenuke?*

-Jostailua ez dela umea bost minututan entretenituta egoteko tresna bat, bere garapenean laguntzen dion oso tresna inportantea dela. Eta jostailua bezain inportantea jolasa dela.

Hona hemen Olatzek emandako aholku batzuk jostailu bat aukeratzerakoan:

- Prezioa egokia izatea.
- Zenbat umek parte har dezaketen.
- Puzkatzeko erraza den ala ez.
- Jostailuaren arriskuak.
- Iragarkiak errealitatearekin egiaztatu.
- Kajako irudia eta barrukoa bat etortzea.
- Erabiltzeko arauak badakarren ala ez.
- Adinerako aholkuak.
- Jostailua osoa edo zatika erosi behar den.
- Garantia bat eduki behar du.
- Jostailua konpontzeko informazioa, apurtuz gero.
- Telebistan iragarrita dagoen ala ez.
- Behin baino gehiago jolastekoa den ala ez.
- Umeak jolasarekin imaginazioa lantzen duen ala ez.
- Jarrera sexista eta belikoa edukitzen laguntzen duen jostailua den ala ez.

Liburu interesgarriak:

"Televisión fábrica de mentiras", Lolo Rico.

"No hay padres perfectos", Bruno Bettelheim.

Euskal jolasen bilduma

Urtxintxa Eskolak, umearen aisialdiarekin arduratzen den eskola, 50 ume-jolas bildu ditu CD-rom batean, Euskal jolasen bilduma. Betiko euskal jolasetan oinarrituta dago, nahiz eta jolas berriak ere agertu.

CD-Rom intereaktiboa da jolasaren inguruan gauzak ikusteko, entzuteko eta jolasteko.

Guztira 50 jolas dira, hauetariko 27, abestiak. Diskoarekin batera liburuska bat dator abesti guztiekin. Eta gainera, jolas interaktiboa ere eskaintzen du Tortoloxekin jolastekoa. Umeei zuzendutakoa da baina gurasoentzat ere interesgarria da oso.

Urkiri Autozerbitzuak
Ondo pasa Gabonak!
Erdiko kale, 1 - Tel. 943 60 36 80
Atxitxin jeitsiera - Tel. 943 60 36 47

Zorionak eta Urte Berri On
TIRABIRA

Gabon kantak

Olentzero

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dela
lasterka etorri da
berri ona ematera.

Horra! Horra!
Gure Olentzero!
pipa hortzetan duela
eserita dago.
Kapoiak ere baditu
arraultzatxuekin
bihar meriendatzeko
botila ardoarekon.

Inolaz ezin dugu
Olentzero ase
bakarrik jan dizkigu
Hamar txerri gazte.
Saiheki ta solomo
makina bat este
Jesus jaio da eta
alaitu zaitezte.

Horra! Horra!...
.....

Olentzero begi gorri
nun harrapatu dek
arrain hori
Zurriolako harkaitzetan
bart arratseko hamaiketan

Eskiltxoak

Eskiltxoak din-dan jotzen, umetxoak lo erazten
zerua bete da izarrez, artzaiak daude poz pozez
zeruetako haurtxo Jainkoa jaio delako Belenen

Irriparrez haurtxoa entzunikan eskiltxoa
haurtxo txikitxoa zara zu Jainkoaren Semea
beti betiko gure Errege ta jabe izan zaitela.

Eskiltxoak din-dan jotzen, umetxoak lo erazten
ez negarrik egin emango sagar bat ximel-ximela
amona bezain ximurra eta goxoa bera bezala.

Birjina maite lotan dago

Birjina maite lotan dago
zure seme laztana
seaskatxo bat ipini iozu
gure bihotzen kutunai.

Ongi bai, ongi igaro ditzan
gabak eta egunak,
poliki-poliki eragi iozu
egin dezan lo ona. (bis)

Zeru goi goitik gugana dator
gure Jesus laztana,
lasterka, lasterka guazen kristauok
gure jaunarengana.

Ongi bai, ongi bai...

Haurtxo polita

Haurtxo polita seaskan dago
zapi zuritan txit bero. (bis)
Amonak dio, ene potxolo
arren egin ba lo,lo (bis)

Txakur haundia etorriko da
zuk ez badezu egiten lo. (bis)
Horregatik ba, ene potxolo
egin aguro lo. (Bis)

Jesus maitea logurez dago
seaskan hain zoragarri. (bis)
Aingerutxoak kantari daude
lo eraginez haurrari (bis)

Loak hartu du aingerutxoak
egan dabiltz inguruan. (bis)
Ixil ixilik makurtun eta
laztantzen dute musuan. (bis)

Esnatu da ¡oi! Jesus maitea
irriparrez bere ezpainak. (bis)
Hura ikusteko ideki ditu
zeruko ateak Jaunak. (bis)

Gabeko izar

Gabeko izar argitsuena
pixtutzenakin batera
haurtxo eder bat etorri zaigu
gaur arratzian etxera.
Orduezkero etxeko danok
poztu eta zoratzen gara
haurra dalako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera.

Zoraturikan aingeru pilak
elkar arteko leiazka
Zeru goietik dakarkiote
urre utzezko seaska.
Guk eskeniko maindire txuri,
garbi eta ederrak badauzka
Geroztik gabiltz haur inguruan
Pozaren pozez oihuka.

Urte berri urte zahar

Urte Berri Urte Zahar
Petroliña galtza zahar
Urte Berri Urte Zahar
Petroliña galtza berri.

Gloria zeruan

Gloria zeruan da pakea lurrean
Borondate oneko gizonen artean. (bis)

Aingeruak esan du hor goiko mendian,
Jesus jaiotzen dala gabaren erdian. (bis)

Gaur da nere kristauak

Gaur da nere kristauak zeru lurraren jaia
goazen guztiok Belenera Jesus jaio da eta,
aingeruak dabiltza soinu eta kanta
pozez txoraturikan artzaiak brinkoka
pozez txoraturikan artzaiak brinkoka.

Artzai buru zuri bi Antton eta Peru
Belengo estalpera etorri zaizkigu,
sartu ziren barrena Manueltxo´ngana
presente egin zioten arkumetxo bana
presente egin zioten arkumetxo bana.

Trakatan, trakatan

Trakatan, trakatan
hiru errege,
trakatan, trakatan,
Belenera,
Belenen jaio den
Jesus haurtxoa
trakatan, trakatan
agurtzera.

Meltxorrek, trakatan,
zaldia beltza,
Gasparrek, trakatan,
zaldi gorri,
trakatan, trakatan,
Baltasar zaharrak
zaldia, trakatan,
zuri-zuri.

Haur eder baten bila

Haur eder baten bila
gabiltza zoratzen
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen.

Jaungoikoaren herri
maite Jerusalem
esan zaiguzu laster
Jesus non jaio den.

Izar bat agertu da
dirdiraz zeruan
kinuka ari zaigu
Gabon gaberdian

Jaungoikoaren herri...

Opariekin gatoz
izarra gidari,
eman nahi dizkiogu
gaur bertan berari.

Jaungoikoaren herri...

Estalpe zahar batean
dago hotzez dardaraz,
azkar nahi dugu Jesus
berotu arnasaz.

Jaungoikoaren herri...

Elurra mara-mara

Elurra mara mara ari da
zuritu du mendia,
arditxoak sartu dira hotz hotzez
txabol, txabol sarrean.

Nik badaukat bildost txiki bat
hementxe seaskatxoan,
baina hau jango duen otsorik
ez da sortu ludian.
(bis, Elurra mara-mara...)

Haurtxoak loak hartu digu
jango nuke musuka,
aingerurik baldin bada
hemen gure haurtxoa.
(bis, Elurra mara-mara...)

Hator hator

Hator,hator, mutil etxera,
gaztaina ximelak jatera,
gabon gaba, ospatutzeko
aitaren t'amaren ondoan
ikusiko dek aita parrezka
amaren poz atseginez.

Eragiok mutil
aurreko danbolinari
gaztainak erre artean
gaztainak erre artean
txipli, txapla, pun.
Gabon gaba pozik igaro
daigun.

Belenen sortu zaigu

Belenen sortu zaigu Jainkoa
arratseko gau erdian,
hotzez dardaraz dago gaixoa
lasto pixkaten gainean
beroa halez bero dezagun
apa emanez muxua

Egiz maite dut nik nere ama
nik sortu ninduelako
baina haurtxo hau maiteago dut
nigatik jaio delako
eta gurutzean gero odol deuna
ixuriko duelako

Askatxan etzanda zaude zu
Jaungoikoaren Semea,
zerua utziz hartu duzu
gure gizon izatea.
zure maitasunaren ordainez
izango naiz ni zurea.

Elurra teilatuan

Elurra teilatuan
zakua lepuan
ibili beharko degu
aurtengo neguan.

Rau rau rau rakata plau
hau dek umoria
utzi alde batera
euskaldun jendia.

Kale Inkesta

Jon Azpillaga
jubilatua, 66 urte

Orain Espainian ari dan autonomixan gorabeheran gauzak kentzeko esperantzan ez dezala kendu eta Gernikako estatutoak faltan ditun gauzak eman, ta Euskal Herrian pakia.

Mila Mendizabal
dendarixa, 43 urte

Urte berrixa paketsua izatia, lana denontzat eon daixala eta osasuna oso garrantzitsua dala eta osasuna danentzako

Agustin Agirrebengoa
jubilatua, 66 urte

Bi miloi beste izez.Ertetzen beu geixo, zuentzako sobrantiak.

Zer eskatzen diozu urte berrixai?

Jon Kepa Lekube
ikaslea, 22 urte

Osasuna familixa guztixantzako.

Idoia Elezgarai
langabetua, 29 urte

Osasuna eta lana eukitzia, neretzat eta nere familixantzako eta bestiontzako ere bai.

Aitziber Andonegi
ikaslea, 9 urte

Nere lagunakin ondo konpontzia.

ALDATU ETXEA

DEKORAZIO TEXTILA ETA ETXEKO OSAGARRIAK

Zatoz gure nordikoak, edredoiak, mohair mantak.. ezagutzera!!

Gabon Zoriontsu eta goxo-goxoak igarotzeko

Konde kalea, 7 Mutriku Tel-Fax: 943 60 45 93

Kalaputxi Lanteqian

Olatzeko bisoiak

Gorputz luzexka, hanka motzak, ile beltza eta oso leuna, igeri egiteko moldatuta daueden oin palmatuak ditu, hauxe da bisoia. Bere larrua oso preziatua da. Orain dela urte batzuk, Olatz bailaran bisoi-haztegi bat jarri zen martxan. Poliki-poliki hasita, gaur egunean 20.000 bisoi amerikar dauzka haztegi honek.

Bisoi hauek larrua saltzeko hazten dira eta euren okela ez da jaten. Bisoiak haztegi barruan jaio, hazi eta hiltzen dira. Bertako langileak arduratzen dira guztiarekin, hau da, heziketarekin, garbitasunarekin... Egunean bi aldiz jaten dute, goizean eta gauean. Euren janaria arraina, oilaskoa eta zerealekin tratatutako proteinak dira. Urtean behin egiten dituzte kumeak eta oraintxe da hiltzeko sasoia, ile poroak itxita edukitzen dituzte eta.

Bisoia hil ondoren, larrutu egiten da eta gero, ondo sekatu behar da saltzeko. Larru guztia Copenhagenrantz (Danimarka) bidaltzen da , bertatik irteera emateko.

Kalaputxi Baserrian

Emua gure artean

Emua, jatorriz, Australiako hegaztia da, ostrukaren familikoa, eta munduko bigarren hegazti handiena. Bere lumak grisak eta luzeak dira, oso hanka sendoak ditu eta oinetan dituen hiru azazkalekin defendatzen da. Moko gogorreko eta lepo luzeko hegaztia da, ez du hegan egiten hegoak txikiak ditu eta.

Aurtengo Santo Tomas ferian emua ikusteko aukera izango dugu. Iaz bisontea izan zen nobedadea. Arrakasta ona izan zuenez, hurrengo feriara beste animalia berezi bat ekartzea erabaki zen. Jose Angel Egaña, "Maixa"k, emua Gernikako azokan ikusi ondoren, Mutrikuko Santo Tomas feriara ekartzea ideia ona izango zela pentsatu zuen. Udaletxeko baserritarren arduraduna zen Itziar Egurbiderekin hitz egin eta gero, aurtengo feriara emua ekartzea erabaki zen. "Maixa" bera izan da tratuan ibili dena emua ekartzeko. Bost edo sei emu izango dira Markinako baserri batetik ekarriak. Alde batetik, gure artean ezezaguna den hegazti honen berri emango da, bestetik, jateko oso ona omen den okela bultzatu nahi da. Haragia gorria da, koipe eta kolesterol gutxikoa, beraz osasunarentzat oso ona. Probatzea izango da dena!

Kalaputxi Portuan

Paro biologikoa

Arrantza giroa mutrikuarren bizimoduari lotuta egon da beti, aitona arrantzalea, ama sare konpontzailea, laguna arrain saleroslea...

Orain dela urte batzuekin konparatuta, gaur eguneko portuak ez du arrantza mugimendu berdina, oraingoa txikiagoa da, baina, hala ere, gure arrantzaleek arau batzuk jarraitu behar dituzte. Hauetariko bat *paro biologikoa* da, hiru hilabetetan itxasora ezin dute irten, abenduaren hasieratik otsailaren azkenera arte.

Honen helburua arrain populazioa berriztea da, oso egoera larrian baitago. Ardorako flota osoak, hau da, sareakin arrantzan egiten duenak neguan bete behar du paro biologikoa.

Urtean zehar gure itxasontziek ziklo bat jarraitzen dute. Martxotik ekainera arte antxoa harrapatzen dute eta gero, udako kanpainan, hegaluzea. Itxasontzi batzuk kanpaina hau luzatu egiten dute Mediterraneo itxasora joaten baitira. Beste batzuk Frantziako kostaldera abiatzen dira antxoarekin jarraitzeko, ez arazorik gabe.

Kalaputxi Dendetan

Euroa badator

Egunak gelditzen dira 2001 urtea amaitzeko eta urte berriari ongi etorria emateko. Batzuentzat, bukatzen den beste urte bat da, beste batzuentzat, dendarientzat adibidez, urte berezi bat hasiko da Euroa baitator.

Dena prest egon behar da Euroa etortzen denerako, prezio guztiak eurotan ipini, kobratzeko makinak aldatu eurotan kobratzeko, ordenagailuak ere aldatu egin behar dira ... Herriko dendari batzuekin egon ondoren, euren kezkak jaso ditugu.

Hasiera baten, urtarrilaren 1etik otsailaren 28rarte, euroekin eta pezetekin, biekin ordaindu daiteke. Dendarientzat nahastaketa handia izango da diru biekin lan egin beharko dute eta. Kontsumitzaileak, nahiz eta pezetetan ordaindu, jasoko dituen bueltak eurotan jasoko ditu.

Martxoaren 1etik aurrera, dena eurotan ordaindu beharko da, eta momentu honetako arazo handiena, dendarientzat, jendeak txanpon eta billete asko erabiliko duela. Diru berriarekin ohitu arte izango dira arazo guztiak, hortik aurrera dena normala izango baita.

Guztiok erabiliko dugun dirua izango da Euroa (166,386 pzta), beraz dendetako aldaketak derrigorrezkoak izango dira eta honek dendarien gastuak gehitu egiten ditu, aparteko gastuak izan dituzte eta.

Dendetan egin diren aldaketak ez dira izan egun batetik bestera, aitzitik, denbora bat eraman du prezioak euroetara eramateak, kontabilitatea eurotan ipintzea... ez dute lan makala izan gure herriko dendariek euroa datorrenerako prest egoteko, euroa badator eta!

Eskalatzaile trebea

Igor Mendizabal, "Goixerri", igeltsero lanetan ari den 26 urteko mutrikuarra da. Mendirako joera txikitatik datorkio eta eskalada da, konkretuki, bere zaletasun handiena. Zaletasun horrek eraman du Igor Mutrikuko mendietatik Himalaia mendikateraino, Asia kontinentean.

Gazte gaztetatik, 10 edo 12 urterekin hasi zen "Goixerri" mendiaren mundua ezagutzen. Espeleologiarekin hasi zen Olatzeko leizezuloetan eta hemen eskalatzeari ekin zion. Eskalaradako zaletasuna handitzen joan zen eta Olatzeko ingurua, berriz, txiki geratu. Hurrengo pausoa, beraz, Atxarte izan zen. Poliki- poliki eskaladaren munduan sartu zen.

Eskalatzeko teknika ikasteko orduan, dena bere kontura ikasi du, esan duen bezala: *"kurtsiloetara sekula ez naiz joan, zenbat eta gehiago ibili, gehiago ikasten duzu, errebistetatik ere zerbait ikasi dut"*. Orain dela urte batzuk, Mutrikun rokodromorik ez zegoenean, danborreko edota Sanmikoilako paretetan entrenatzen zen beste lagun batzuekin. Gero, polikiroldegian rokodromoa egin zenean, bertara joaten zen. Gaur egunean Deban ibiltzen da entrenatzen beste lagunekin, beraiekin egin duten rokodromo partikular batean.

Teknika ikasita eta bere buruarekin konfidantza gehiago izanda, Pirinieotara joatea izan zen hurrengo pausoa. Ordesan hasi eta Katalunian bukatu, Igorrek Pirinio osoa ikusi du.

Hurrengo saltoa Alpeetara. Bizpahiru aldiz egon da mendi hauetan, hauetako irteera batean beste bi mutrikuarrekin joan da, Txirrita eta Garikoitzekin, hain zuzen ere.

"Yosemite eskaladako "meka" da, eskalatzailea Yosemitera joan behar da"

Mundua haundia dela eta gure eskalatzailearen gogoak oraindik eta haundiagoak, 1998an Yosemitera joatea erabakitzen du Jokin Larrañagarekin, beste mutrikuar trebea. Hilabete egon ziren haitz eskalada egiten eta bertan lau bia egin zituzten.

1999 urtean Errusian egon zen talde batekin. Bia berri bat iriki zuten 1.000 metro iguruko horma batean (Amalur izena eman zioten bia berriari) eta beste bia bat errepikatu zuten "Errusiako Dorrea" deitzen den mendian.

Joan den urtean "Espainiako Federazioko Alpinista Gazteen Taldean" sartzeko aukera izan zuen. Proba batzuk

MENDIBE KIROLAK
ESKOPETERO
Erdiko kale 5 1960-tik Tel. 943 60 38 97

FRÅN EPELDE
Taxi Zerbitzua (24 ordu)
Etxekoa: 943 60 34 03
Mobila: 606 36 00 76



(alpinismo azterketa, proba fisikoak, izotz eskalada...) gainditu ondoren, 30 lagunen artetik 8 izan ziren hautatutakoak eta horietako bat "Goixerri" izan zen. Bi urteko progamak izaten dira eta bi urte hauetan irteera batzuk egiten dira, diru laguntzak ere jasotzen dira.

"Programa honen barruan bi urte pasa ondoren , suposatzen da eliteko talde bat osatu dela. Azken finean, urte hauek mendi altuak eta gaitzak lortzeko prestakuntza bat dira "

Programa honen barruan, Kanadako "Montañas Rocosas"eko 15-16 izotzezko ur-jauziak egin ditu. Istripu baten ondorioz, taldeko zuzendaria eta beste eskalatzaile bi hil egin ziren, programa kilinkolon geldituz. Hurrengo irteera, Jordi Corominas arduradun berriarekin, Alicantera izan zen haitz eskalada egitera.



Aurtengo urtarrilean Alpeetan egon da eskalada egiten, nahiz eta kondiziorik onenak ez izan. Aste Santuetan ere Ezkoziara joatekoa zen baina ,"fiebre aftosa" dela eta, parke naturaletara sarrera debekatuta egon zen eta bidaia bertan behera utzi behar izan zuten.

Uztailaren hasieran beste bueltatxo bat egin zuen Alpeetara, Chamonixera hain zuzen ere.

Bi urte hauetan egindako lanak du bere saria Indiako mendietan. Irailean espedizioa Himalaia aldera abiatu zen, Indiako Gahrwall mendigunera, Meru mendian (6.600m) bia berri bat irikitzeko ideiarekin. Sei egunetan mendiko hormetan egon ondoren, nekea eta inguruko egoeragatik, gailurra lortu gabe bueltatzea erabaki zen, hala eta guztiz 6.100 metrotara igotzea lortu zuten.

Meru gailurra ezinezkoa izan zela ikusita eta Mendiz inguratuta dagoen tokia denez, beste mendi bat egitea erabaki zen: Shivling mendia (6.650m). Hiru egun bakarrik behar izan zuten gailurrera heltzeko.

Bi urteko programa hau oraintxe bukatzen zaio "Goixerri"-ri eta orain zer? galdetu diogunean, hona hemen bere erantzuna: "*Orain betiko martxan ibiliko naiz, aste barruan lana egin eta astebukaeretan Pirinioetara irten".*

Momentuan ez dauka proiektu konkretu bat buruan, baina ezer egin gabe ere ez da egongo, aukera on bat etortzen bazaio, dudarik gabe, ez dio ezetz esango, bitartean *"lasai ibiliko naiz lagunekin inguruko paetak eskalatzen eta, beharbada, dakidan guztia gaztetxoei erakusten".* Gazte guztiak animatzen ditu eskalada munduan sartzera, barruan sartzen den zaletasuna baita; *"bere sakrifizioa ere badauka, konstantea izan behar zara, baina benetan gustatzen bazaizu , hori ez da arazoa"* esan digu Mutrikuko eskalatzaile trebe honek.

MISIOEN ALDEKO EKINTZAK

Aurten ere Misio Taldekoek taberna jarriko dute Santo Tomas eguneko. Iaz egin zuten bezala, Astigarraga sagardotegian ipiniko dute. Bertan izango dira lanean herriko zenbait gazte, misioetarako diru apur bat batu nahian.

Horretaz gain, aurten ere zabalduko dute Peruko artisautza lanak saltzeko denda. Hori ere betiko lekuan izango da, Maixaneko taberna izandako lokalean, alegia. Denda hori abenduaren hamaikan zabaltzeko asmoa dute eta Errege Egunera arte egongo da irekita.

Oraingoan, gainera, azoka egunean bertan ere izango dugu artisautza lanak ikusi eta erosteko aukera.

Gogoan izan, urtero egin ohi dutenez, artisau lanik ederrenetakoak zozketatu egingo dituztela. Ez ahaztu, zenbaki batzuk erostea; merezi izaten du eta!



oLaiZoLa
Upela plaza, 10
tef. 943 86 06 00
Zumaia
Erdiko kale, 18
tef. 943 19 50 74
Mutriku

Olatz
- Orratz eskulanak
- Barruko erropak
- Galtzetinak, etab
San Agustin, 2 MUTRIKU

Gabon eta urte Zoriontsua
Mutrikuar guztientzako
eusko alkartasuna
EA
mutriku

Dibujo kurtsiloa

Mutrikuko Arte Tailerrak antolatutako dibujo kurtsiloak harrera ona izan du mutrikuarren artean. Urrian eman zitzaion hasiera eta urtarrilaren azkenean bukatuko da. Xiri Andonegik ematen du kurtsiloa, astean hiru egunetan,, ordu bateko iraupenarekin.

Dibujo-modalitate ezberdinak irakasten dira, azaroan bodegoia irakatsi zen, abenduan perspektibarekin dihardute eta urtarrilean giza irudiarekin arituko dira, ahal bada modelo erreala erabilita.

Hamalau urtetik gorakoei zuzenduta dago kurtsiloa. Adin desberdinetako ikasleak ikus daitezke bertan, bai gazteak bai helduak, emakumeak eta gizonezkoak. Denak zaletasun berdinarekin, dibujoa. Batzuk marrazteko teknika ikastera joaten dira gero euren zaletasuna lantzeko; beste batzuk marrazten ikasteaz gain, aisaldia betetzeko, pare bat jubilatu baitago. Eta badago, jende berriarekin harremanetan ipintzeko oso aukera ona dela, esan duenik ere.

Arrazoi bat ala beste, dibujo kurtsilo honetatik ziur "artista" bat irtetzea, kontuan izanda irakaslearen lana eta ilusioa.

Okelar Bertso Paper saria

Okelar bertso paper saria 15 urtez AEKk antolatu izan duen "Mutriku bertso paper lehiaketa"ren jarraipena da. 2001 urtetik aurrera Mutriku Bertso Eskolak antolatuko du.

Sari banaketa abenduaren 22an izango da Goiko plazan, eguerdiko ordubatetan. Jai giroan izango da sari banaketa hau, Santo Tomas feria ospatuko den eguna izango baita.

Bertan aurkeztuko da "Okelar" Bertso paper sariketako liburua eta bertsozaleek hantxe izango dute 500 pezetan erosteko aukera.

Okelar bertso paper sariketako emaitzak:

Helduak:

1- "Amaren izenean", Ekaitz Goikotxea: txapela eta 80.000pzta

2- "Gai baten bila", Xabier Astigarraga: 40.000pzta.

Saritu gabeko lehenengo mutrikuarra: "Euskararen erasoak", Patxi Lizardi

"Lasaitasunik ez", Jose Juan Lizardi

Gazteak:

1- "Umezurtz zahar baten gogoetak", Miren Artetxe Sarasola: Txapela eta 15.000pzta

2- "Bakardadearen hotsa", Uxue Alberdi: 10.000pzta.

Haurrak:

1- "Itsasoa", Egoitz Agirrebengoa Etxeberria: txapela eta oparia.

2- "Telebistari begira", Bidatz Egia Korta: oparia

Opil Okindegia
DONIBANE
Txurruka plaza, 4-Tel. 943 60 38 00

Arropadenda
Tranpakale, 6
20830 Mutriku (Gipuzkoa)
943-60.70.32

EAJ PNV
Mutrikuko EAJ-PNV
Aurten inoiz baino gehiago, bakea eta Zoriona
Urte berri on!

Olentzerori gutuna

Aupa Olentzero!

Aurten ere, iaz bezala, Mugak (Mutrikuko Gazte Asanbladak) eskari bat dauka zuri egiteko.

Ez dizugu opari materialik eskatuko, horiek pixkanaka geure izerdiz eskuratuko baititugu, baina badugu guretzat garrantzitsua eta ezinbestekoa den eskari bat zuri egiteko, Gaztetxera (matadeixara) jendea hurbiltzea.

Ez dakigu hori non saltzen duten, eta pentsatzen dugu ez dela egun batetik bestera lortzekoa, baina Gabon jai hauetan gure nahiak betetzeko zaudela jakinik, aprobetxatu nahi izan dugu, zuri eskatu eta ea zure zakuan sartu eta Gabon Gauean Gaztetxean jarriko dugun zapatan uzten duzun.

Pentsatzen dugu badakizula jada zabalik daudela ateak edonorentzat, (zuretzako tximinia ere bai), eta urte berria hasteaz batera, Gaztetxeari bide berri bat ireki nahi diogu, proiektu berrietara zuzendua, ekintzaz betea eta, noski, jende berriz betea!!! Jakizu, gure ametsak bete daitezen ezinbestekoa dela zure laguntza.

Zer litzateke Gaztetxe bat jenderik gabe??? Gabon jai batzuk Olentzero gabe bezala, hutsa!!! Eta zertarako dira ametsak betetzeko ez badira??? Jakizu iaz eginiko eskaria bete zela, gazteok batzeko txoko bat izatea, baina ez da aski, horrek funtzionatu dezan jende berria behar da, laguntza behar da, guztion nahiak bete daitezen ekintzak, hitzaldiak, irteerak... prestatzeko. Zer iruditzen zaizu???

Beno ba, muxu bat eta ea 2002-an Gaztetxea denon etxea bihurtzen den, bai, bai, zurea ere bai!!!!!!!!!

JARRI-TOKI
Jatetxea

- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkaria
- Enpresa bazkaria...

Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

BAI EUSKARARI PLAN ESTRATEGIKOA JARRAIPEN BATZORDEAREN AURKEZPENA

Guztiok izango dugu gogoan 1998an, Kontseiluak deituta, Euskal Herriko hiriburuetako bost estadioak lepo bete zireneko irudia. BAI EUSKARARI kanpaina izan zen eta bertan 120.000 lagunetik gora batu ziren euskaldunon hizkuntza euskara dela aldarrikatzera. Ordutik hona hiru urte igaro dira eta jai hark jarraipena izan du. Dagoeneko, , bakarka zein eskualdeka, 174 udalerri dabiltza Bai euskarari kanpaina haren ezpirituari jarraituta lanean.

Abenduaren 3an, Mutrikuko Zabiel kultur etxean, Bai Euskarari Plan Estrategikoa zuzenduko duen Jarraipen Batzordearen aurkezpena egin zen herriko gizarte eragileen aurrean. Bertan, udalean ordezkaritza duten hiru alderdi politikoen, euskalgintzaren eta gizarte eragileen ordezkariek planaren nondik norako nagusiak eman zituzten, Kontseiluko lehendakari Xabier Mendigurenekin batera.

Jarraipen batzordeak plana bide onetik doan zainduko du aldiro-aldiro batuta eta segimendua eginda. Hiru zutabe garrantzitsuk osatzen dute Jarraipen batzordea: udal ordezkariak (Aitziber Andonegi, Miren Pazos eta Iban Arrunategi), euskalgintzaren ordezkariak (Xabier Urkiza, Jokin Larrañaga eta Amaia Oianguren) eta gizarte eragileen ordezkariak (Jose Mari Etxaburu, Iñigo Andonegi eta Juan Angel Ansola). Gainera, horiekin batera, Plan Estrategikoa garatuko duten bi teknikariak (Olatz Azpiazu eta Erdotza Flores) eta udaleko euskara teknikaria arituko dira batzorde horretan.

Bai euskarari Plan Estrategikoak gure herrian euskarak normalkuntza osoa lor dezan bide egitea du helburu nagusi, udalerriko bizitza sozialean euskara hutsez jokatzeko modua izan arte. Hori dela eta, herriko 149 gizarte eragilerengana jo da eta, beraiekin elkarrizketan jardunda, 90k agertu dute planean parte hartu nahia, dendak, tabernak zein jatetxeak, elkarteak, langile autonomoak, zerbitzu enpresak eta bestelako enpresak daudela horien artean.

Datozen sei hileetan luzatuko den Plan estrategikoan hiru urrats aurreikusten dira. Hasierako egoeraren diagnosia eginda, planaren helburu estrategikoak definituko dira, azkenik ildo estrategikoak eta ekintzen plana diseinatzeko. Hiru aldietan, planaren arduradun izango diren teknikariek eta gizarte eragileek elkarren artean egingo dute lan, plana adostasunean oinarrituta. Hiru aldi hauek amaituta, gizarte eragileek bakarkako konpromisoak hartuko dituzte aurrerantzean beren jardueran euskararen bidetik abiatzeko.

Zuk, irakurle, zeure aldetik ere eman ahal diozu bultzadatxoa Bai euskarari Plan Estrategiko honi eguneroko gauza txikietan gure hizkuntzari behar duen garrantzia emanda eta egunero-egunero zertxobait euskaldunago jokatuta.

Zure iragarkia mutrikuar guztiek ikusiko dute
Kalaputxi
Herri aldizkarixa
943 60 34 68
Erdiko Kale 4 behea

Sanchez Margolanak

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
DOMICILIO: TELF. 604317
TIENDA: TELF. 603643
PANADERIA:TELF- 604512

mutrikuberri s.a.
sustapena eta garapena
Kaia, z/g · 20830 Mutriku · Tel.: 943 60 32 04 · Faxa: 943 60 40 28

Olgatzen

Sasoi honetan Mutrikuko lonjan aurkitu ahal diren 8 arrain aurkituko dituzu letra-zopa honetan.

L	A	U	P	S	I	B	O	A	M	S	A
A	R	A	E	I	L	A	S	K	A	I	Z
U	B	A	R	B	A	I	N	A	L	O	I
R	A	S	L	E	S	S	O	R	I	E	M
U	K	I	I	J	A	N	E	K	R	A	A
B	L	L	N	I	N	A	M	A	R	T	R
A	E	O	T	N	T	X	O	J	A	U	R
R	I	E	X	T	N	I	J	A	S	N	O
R	B	L	A	O	A	M	E	L	I	A	I
U	E	A	S	A	N	I	L	E	L	I	A

Zaku honetan baserrriko 7 lan tresna daude; aurkitu bai?



Ezker-eskumin dauden hitzek goitik beherakoak emango dizkizute.



1. Itsasoan bizi den animalia handia.
2. Amaren semearen arreba.
3. Meza liburua.
4. Edateko erabiltzen den ontzia.
5. Baserriko aberea.
6. Eskasa, gutxi dagoena.
7. Fruitu arbola.
8. Hamabi hilabete.
9. Euri lanbro fina.

I. Mutrikuko mendi parajea.
II. Olatz aldeko parajea.

hator hator Euskadira. hator hator etxera

ARITZA BASERRIA. Sutondoan

Josefa Ignacia Arriola, Pedro Mari Txurruka "Aritza", Mª Victoria Iriondo, Pedro Txurruka, Martina Txurruka, Maria Arriola.

aparra
JANTZIAK - PITXIAK
Erdiko-kale, 29
Tfno.: 943 60 45 94
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

Eraikuntzak Olatz
Olatz auzoa
Telf.943 60 44 10

AUTOS MUTRIKU, S.L.
CITROËN
Mijoa Industrialdea, z/g
Tel.: 943 60 31 00 - Tel.Mug 670 22 26 20 - Fax: 943 60 44 17
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

Agenda

Abenduak 21

Diapositiba emanaldia: Errusiako mendi altuena, **Unanue**

- Arratsaldeko 7:30etanZabiel kultur etxean,

Antolatzailea: **Burumendi Mendi Taldea**

Abenduak 22

Santo Tomas ferixa, Elizatzean, Musika eskolako trikitilariek girotuta

- Gaueko 10:30etan: Parrokian Gabon kontzertua, Udal Musika Eskolak antolatuta

- 1974an jaiotakoen kintada, Zelaieta jatetxean

Abenduak 24

- Arratsaldeko 5etan Elizako Taldearen Gabonetako kantak kaleetan zehar
- Olentzero kalez kale musika eskolako akordeoiek lagunduta
- Musika Bandako gazteak kalean zehar
- Arratsaldeko 6:30etan Gestoretako Olentzero Mutrikuko kaleetan zehar.

Abenduak 24tik urtarrilak 5arte

- Umeentzako ekitaldi desberdinak: irteerak, jolasak...

  goizez 10:30etatik 13:30ak arte

  arratsaldez 4etatik 7:30ak arte

Antolatzailea: **Txantxangorri Aisialdi Taldea**

Abenduak 28

- Arratsaldeko 7etan, Goiko plazan enkartelada

Antolatzailea: Etxerat elkartea (Senideak eta Gureak)

Abenduak 29

- Goizeko 11etan, beheko plazan eskaiolazko iruditxoen margoketa ume eta gaztetxoentzat. Oharra: Arropa zaharrak jantzita etorri

Antolatzailea: Mutrikuko Arte Tailerra

- Gaueko 10:30etan Musika Bandaren kontzertua, parrokian

Abenduak 30

- Goizeko 11:45etan, Komenduan, Aintzane Basterretxearen (piano) eta Naroa Enekotegiren (ahotsa) kontzertua

Abenduak 31

- Arratsaldeko 5etan Anaiarte Abesbatza kalez kale

Urtarrilak 1

- Goizean Burumendi Mendi Taldearekin Arnora irteera

Urtarrilak 5

-Arratsaldeko 7:30etan, Erregeen kabalgata.

Urtarrilak 13

-Arratsaldeko 7:30etan, Erregeen kabalgata.

Antolatzailea: **Burumendi Mendi Taldea**

Urtarrilak 20

- Eguerdiko 13etan. Zabiel plazan, Musika Bandaren kontzertua.

ZINEMA

"Inteligencia artificial"

Abenduaren 21, 22, 23 eta 25ean

" Stop"

(umeentzako)

Abenduaren 23an

"A todo gas"

Abenduraren 28, 29, 30ean
Urtarrilaren 1ean

"La banda del patio"

(Umeentzako)

Abenduaren 30ean

EDERRENA

Ordutegia

Barixakua: 22:30
Zapatua: 22:30
Domeka: 16:00, 19:00 eta 22:00
Astelehena: 19:00

PSE
EUSKADIKO EZKERRA PSOE

Zorionak eta Urte Berri On

MUTRIKUKO ELKARTE SOZIALISTA

2 eta 3 Logelako 28 Etxebizitza.
Igogailua-Berogailua-Trastelekua
Kalitate onekoak
HASIERA URTARRILA-OTSAILA 2002
BUKAERA 2003

Informazioa eta Salmenta
ITURRINO, S.L.
TEL: 943-603093

Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna

DEBABE UDAL
EUSKALTEGIA

Txurruka Teniente etorbide 5 atzea, Tel: 943-60 30 94

CÓNDOR

Arrain kontserbak

ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.